



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

OINARRI ESPEZIFIKOAK, ARABAKO KALKULUGUNEA SA FORU SOZIJETATE PUBLIKOAN SISTEMEN ANALISTAREN LANPOSTU BAT (PROFIL GENERIKOA) BETETZEKO LANGILE LAN KONTRATUDUNEN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTENAK

(deialdiaren kodea: 2024003)

LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:

Azpiegituren Alorrean integratuko da, proiektuaren buruaren eta, aldi berean, alorraren arduradunaren mende.

Lanbide jardueran AKSAn honako eginkizun hauek bete beharko ditu:

- Produktuak, sistema eragileak eta datu baseak instalatzea eta eguneratzea
- Azpiegiturak administratu, monitorizatu eta mantentzea
- Eskaerak, gorabeherak eta arazoak ebatzea
- Software elementuen ingurune batetik bestera pasatzea (hedapenak), eta planifikatutako prozesuak egitea eta kontrolatzea
- Proiektuak gauzatzean aholkularitza teknikoa ematea eta parte hartzea
- Agiri teknikoak idazten eta ebatzen parte hartzea
- Merkatuaren azterketak egitea eta irtenbide berriak diseinatzea

BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiek posta elektronikoz bidali beharko dute 2024003@qualisconsultores.es helbidera oinarri orokorretako 3.1) puntuan eskatzen den dokumentazioa (bidalitako mezuak 30 MB baino gehiago hartzen baditu, mezu bat baino gehiago bidaliko dira, bakoitzean baimendutako gehienekoa gainditu gabe).

Eskaerak aurkezteko epea 2024ko azaroaren 7an amaituko da.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKATUTAKO TITULAZIOA:

- Telekomunikazioetako goi mailako ingeniarietza edo Informatikako goi mailako ingeniarietza edo Informatikako lizentziatura edo gradu baliokidea





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Goi mailako beste ingeniari batzuk, Fisikako edo Matematikako lizentziaturak edo gradu baliokideak.

LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:

1. FASEA: EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK EBALUATZEA:

Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa izango da (GAI – EZ GAI).

- Honako hauek administratzeko eta konfiguratzeko ezagutzak:

- Zerbitzariko sistema eragileak
- Aplikazioen zerbitzariak
- Datu baseen zerbitzariak

Zinpeko adierazpen bidez egiaztatu behar du aurretik adierazitako jakintza espezifiko guztiak dituela.

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

2. FASEA: MEREZIMENDUEN BALIOESPENA (30 puntu, gehienez ere):

A) Bete beharreko eginkizunekin lotura duten titulazioak (10 puntu, gehienez ere):

- Telekomunikazioetako goi mailako ingeniari edo Informatikako goi mailako ingeniari edo Informatikako lizentziatura edo gradu baliokidea: 8,5 puntu
- Goi mailako beste ingeniari batzuk, Fisikako edo Matematikako lizentziaturak edo gradu baliokideak: 6 puntu.
- Lizentziaturari, goi mailako ingeniari edo antzeko graduari erantsitako master ofiziala edo baliokidea, gutxienez 60 ECTSkoa, lanpostuaren eginkizunekin lotua: 1,5 puntu.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Lehenengo bi apartatuak baztertuaileak dira, alegia, hauei dagozkien puntuak baino ez dira zenbatuko: “Telekomunikazioetako goi mailako ingeniari-tza edo Informatikako goi mailako ingeniari-tza edo Informatikako lizentziatura edo gradu baliokidea”, edo “Goi mailako beste ingeniari-tza batzuk, Fisikako edo Matematikako lizentziaturak edo gradu baliokideak”. Ez dira inolaz ere batuko bi ataletako puntuak.

B) Hizkuntzak (4 puntu):

B.1) Hizkuntza: Euskara (geh. 2 puntu):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatze-ko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **1 puntu.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

B.2) Hizkuntza: Ingelesa (geh. 2 puntu):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatze-ko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **1 puntu.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

C) Esperientzia (geh. 16 puntu):

- CV, curriculum memoria eta lan bizitzaren txosten eguneratuaren bidez egiaztatuko da.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

2 urtetik gorako esperientzia azken 4 urteetan, lehenengo oinarrian zehaztutako eginkizunak bete dituen lanpostuetan.	<ul style="list-style-type: none">- Oso egoki betetzen du: 16 puntu.- Nahiko egoki betetzen du: 12 puntu.- Egoki betetzen du: 8 puntu.- Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 4 puntu.- Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: 0 puntu.
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Urtebete baino gehiagoko esperientzia azken 4 urteetan, lehenengo oinarrian zehaztutako eginkizunak bete dituen lanpostuetan, sektore publikoko erakunderen batek zuzenean kontratatuta.	<ul style="list-style-type: none">- Oso egoki betetzen du: 16 puntu.- Nahiko egoki betetzen du: 12 puntu.- Egoki betetzen du: 8 puntu.- Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 4 puntu.- Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: 0 puntu.
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Balioespena egiteko:

Ulertuko da:	Baldin eta lehenengo oinarrian deskribatutako hasierako eginkizunen ehuneko hau modu frogagarrian islatzen bada:
Oso egoki betetzen du	% 100
Nahiko egoki betetzen du	> % 66 eta < % 100
Egoki betetzen du	> % 33 eta <= % 66
Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka	> % 0 eta <= % 33
Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka	% 0

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

Merezimenduen baremoetan, lanbide esperientziaren ondorioetarako, honako hauek balioetsiko dira: hautagaiak ahaideak zaintzeko edo genero indarkeriagatik eszedentzian egon diren denbora; amatasuna eta aitasuna babesteko edo erantzukizuna partekatuz norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko xedea duten lanaldi



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

murrizketei edo baimenei egotzi ahal zaien denbora, eta emakume enplegatu publikoek genero indarkeriatik baimenak erabili dituzten denbora.

3. FASEA: EZAGUTZA TEKNIKOEN PROBAK ETA LANPOSTUAREN EZAUGARRIETARAKO EGOKITASUN PROBA PSIKOMETRIKOAK

- **Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa** izango da **(GAI – EZ GAI)**.
- Probak egingo zaizkie 1. fasean gaitzat jo diren eta 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten lau pertsoneri.
- Proba psikometrikoak:
 - Proba bat edo gehiago egingo dira izangaiak lanpostuaren profilerara eta bete beharreko eginkizunetara egokitzen diren baloratzeko.
 - Qualis Consultores de Talento SLk txosten osatu bat egingo du 4. faserako proposatutako hautagai bakoitzaren inguruan.
- Ezagutza teknikoaren proba:
 - Ariketaren xedea haxe izango da: ezarritako denboran, galdetegi bati idatziz erantzutea (aukera anitzeko erantzunak).
 - Ariketa hori zuzentzean, ondo erantzundakoen kopuruari errore kopuruaren herena kenduko zaio ($V = A - E/3^1$). Erantzun gabeko galderek ez dute zigorrik izango. Azken balorazioa ehunenetan moztuko da.²
- Balorazioa GAI izango da ezagutza teknikoaren proban 5 puntu edo gehiago lortu eta fase honetako proba psikometrikoetan gai izan direnentzat.
- Balorazioa EZ GAI izango da ezagutza teknikoaren proban 5 puntu baino gutxiago lortu eta/edo proba psikometrikoetan ez gai izan direnentzat.
- Gaitzat jotzen diren hautagaiak aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute AKSA-n, hautaketa prozesu honetarako eratu den hautaketa epaimahaiko kideen aurrean.
- Pertsonaren bat EZ GAI gertatuz gero edo 3. FASE HONETAN uko eginez gero, AKSAK probak egin ahal izango dizkie hurrengo puntuazio onenak dituzten pertsoneri, eta hurrengo fasera (4.era) pasatuko dira gaitzat jo eta lau puntuazio onenak dituztenak.

V= ariketen balorazioa, A= ondo erantzundako galderak, E = gaizki erantzundako galderak.
Moztea da hamarrenak ezabatzea borobiltzerik gabe, hamarren jakin batetik aurrera. AKSAren kasuan, bigarren dezimala da hori. Esate baterako, 4,171 eta 4,179 moztuta, 4,17 geratzen da.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

4. FASEA: GAITASUNEI ETA EZAGUTZA TEKNIKOARI BURUZKO ELKARRIZKETA (20 puntu, gehienez ere)

- ● **Nahitaezkoa da.**
- ● 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten lau pertsoneri eta 3. fasean gaitzat jo direnei egingo zaie elkarrizketa pertsonala.
- ● Elkarrizketa hautaketa epaimahaiko kideek egingo dute AKSA sozietatearen egoitzan, eta ardatz izango ditu lanpostuko gaitasun orokorrak, zeharkakoak eta teknikoak.
- ● Elkarrizketak bi zati izango ditu:

- **Gaitasunak:** Elkarrizketa horretan honako gaitasun hauek balioetsiko dira: (10 puntu, gehienez ere)

- Taldean lan egiteko gaitasuna
- Presiopean lan egiteko gaitasuna
- Komunikazio gaitasuna
- Autonomia eta inizatiba
- Inplikazioa lanarekin

Fase honetako puntuazioa eskala honen arabera aztertutako gaitasunetako bakoitzean lortutako puntuazioen batura izango da:

- Gaitasun maila baxua: 0 puntu
- Gaitasun maila ertaina: 1 puntu.
- Gaitasun maila altua: 2 puntu.

- **Ezagutza teknikoak:** Elkarrizketa honetan, ezagutza hauek baloratuko dira: (10 puntu, gehienez ere)

- Zerbitzariko sistema eragileak (z/OS, Windows, Linux): 2 puntu, gehienez
- Web zerbitzariak (IIS) eta edukien kudeatzaileak (LifeRay): 1 puntu, gehienez
- Aplikazio zerbitzariak (JBoss, .NET) eta edukiontziak (OpenShift): 2 puntu, gehienez
- Datu baseen zerbitzariak (DB2 for z/OS, SQL Server): 2 puntu, gehienez
- Automatizazio eta plangintza tresnak (Control-M): 2 puntu, gehienez
- Scripting lengoaiak (Powershell, Python, REXX): 1 puntu, gehienez



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Elkarrizketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, hautaketako epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.
- Gutxieneko atalase hauek ezartzen dira:
 - Gaitasunen zatia: 5 puntu.
 - Zati teknikoa: 5 puntu.
- 4 hautagaietakoren bat aurreko puntuan eskatutako gutxieneko atalasetara iristen ez bada, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta gainerako pertsonak jarraituko dute.
- Fase hori amaitu ondoren gai diren pertsonak lau baino gutxiago badira, hautaketa epaimahaiak ahalmena izango du, egoeren arabera, gai den hurrengo hautagaira edo hautagaietara jotzeko.

FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
EG/G	30	EG/G	20	50